

6-KANALAK:

Kanalak hiru ataletan oinarritzen dira: bezeroarekiko komunikazioa (1) banaketa (2) eta salmenta (3).

1- KOMUNIKAZIOA

Gure enpresaren eta eroslearen arteko komunikazioa kanal propioan oinarrituta egongo da. Honekin batera produktua kanal zuzenen bidez salduko dugu. Gure ideia, interneten webgune bat sortzea izango litzateke, non bezeroek etxetik mugitu gabe gure enpresari buruzko informazioa lortuko zuten. Honetaz gain, sare-sozialetan hartuko dugu parte, ikusi egin dugulako, garai honetan sare sozialek gizartean oso integratuta daudelako eta hauek lagundu ahalko digute gure enpresari bezero berriak aurkitzen. Web gune hauek ahal den denbora guztian berritzen joango gara, informazio gehiago gehituz eta eraldatzen, gure enpresa denborarekin eta gizartearekin batera aurrera joaten delako. Guretzako, bezeroarekin harreman ona izatea da helburu nagusia, horretarako, gure web orrian, gurekin komunikatzeko era guztietako informazioa jarriko dugu. Informazio horren bitartez, bezeroak gure produktuen buruz informazio gehiago lortu ahal dute, hauen prezioetik, haien kokapenera.

Honetaz gain, web orri honetan gurekin harremanetan jartzeko telefono zenbaki bat eta emailaren helbide bat

smartbinzurekin@gmail.com) jarriko dugu haiek gurekin kontaktuan jartzeko. Lehendabizi, bezeroarekin haiek erabilitako komunikazio medioaren bitartez komunikatzen hasiko ginateke, haiek nahi dutena guk haiei emanaz, eta bezeroa gure produktua erosteko benetako nahia duela sumatzen dugunean, haiekin hitzordu bat antolatuko genuke. Hitzordu honetan, gure produktuaren salmentari buruz hitz egiten hasiko ginateke. Lehenik, haiei galdetuz zeintzuk diren haien nahiak. Gero, eskaeraren arabera prezioa jarriko dugu eta banaketa moduan adostuko dugu.

2-BANAKETA

Produktuaren banaketa, bidalketa zuzenen bidez egingo dugu, bezeroari zuzenean produktuak eramanez (DHL bezalako enpresa batekin kontaktuan jarritz). Gure produktuek pisu eta bolumen altuak lor ditzakete, orduan, karga handiak eraman ditzakeen garraiolari enpresa bat kontratatu beharko genuke. Gure kasurako, DHL, TNT, SEUR, XPO TRANSPORTES... garraio enpresa aproposena dela ikusi egin dugu, orduan, enpresa hauekin egingo genuke gure produktuaren garraioa eta banaketa.

3-SALMENTA:

Lehentasuna, biztanleari asetzea da gure eginkizuna. Hori dela eta, hainbat elkarteei aurkeztu beharko genieke gure produktua eta hauekin adostu aurrekontu bat egiteko eta saltzen hasteko, nahiz fisikoki edota hitzorduen bitartez. Produktua egiterakoan, biztanleriak nahi duen bezala kontuan hartuko dugu eta gero haiei aurkeztu. Urratsak hainbat alditan saiatuko ginateke egiten, horrela, eroslea asetu arte.